Ildo horretatik, Asteasuko Udalak aurreko paragrafoaren deskripzio-memoria egin du, eta Tolosaldea Garatzen Eskualdeko Garapen Agentziako Ingurumen eta Toki Garapeneko teknikariak sinatu du.

En este sentido, el Ayuntamiento de Asteasu ha formulado la memoria descriptiva del párrafo anterior, y que ha sido firmada por La Técnica de Medio Ambiente y Desarrollo Local de la Agencia de Desarrollo Comarcal Tolosaldea Garatzen.

IV. Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa egiten duenak, honako hau xedatzen du, besteak beste:

IV. La Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por la que se transponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014, dispone, entre otros, lo siguiente:

Bigarren xedapen gehigarria. Toki-entitateen kontratazioaren arloko eskumenak.

Disposición Adicional Segunda. Competencias en materia de contratación en las Entidades Locales.

1. Toki-entitateetako alkateen eta lehendakariaren eskumena izango dira, kontratazio-organoren neurrian, kontratu hauek guztiak: obra-kontratuak, hornidura-kontratuak, zerbitzu-kontratuak, obra-emakidako kontratuak, zerbitzu-emakidako kontratuak eta administrazio-kontratu bereziak, baldin eta haien balio zenbatetsia ez bada aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 baino handiagoa, eta ezta, inola ere, sei milioi euro baino gehiago ere; berdin gertatuko da urte anitzeko kontratuen kasuan ere, haien iraupena ez bada lau urtekoa baino luzeagoa, balizko luzapenak barne, eta, betiere, urteroko guztien zenbateko metatua ez bada lehenengo ekitaldiko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, ez eta sei milioi euro baino gehiago ere.

1. Corresponden a los Alcaldes y a los Presidentes de las Entidades Locales las competencias como órgano de contratación respecto de los contratos de obras, de suministro, de servicios, los contratos de concesión de obras, los contratos de concesión de servicios y los contratos administrativos especiales, cuando su valor estimado no supere el 10 por ciento de los recursos ordinarios del presupuesto ni, en cualquier caso, la cuantía de seis millones de euros, incluidos los de carácter plurianual cuando su duración no sea superior a cuatro años, eventuales prórrogas incluidas siempre que el importe acumulado de todas sus anualidades no supere ni el porcentaje indicado, referido a los recursos ordinarios del presupuesto del primer ejercicio, ni la cuantía señalada.

2. Osoko Bilkuraren eskumena izango da, kontratazio-organo den neurrian, aurreko apartatuan aipatutako kontratuak egitea kontratuaren balioagatik edo iraupenagatik toki-entitateko alkatearen edo lehendakariaren eskumena ez denean aurreko apartatuak xedatutakoarekin bat. Halaber, Osoko Bilkurari dagokio lege honen 121. artikuluan aipatzen diren administrazio-klausula orokorren agiriak onestea.

V. "Asteasuko Pello Errota ikastetxearen inguratzaile termikoa birgaitzeko proiektua"-n xedatutakoaren arabera (Soroa Arquitectos SLPk sinatu zuen 2021eko irailean), kontratuaren balio zenbatetsia 262.581,54 eurokoa da, eta hiru hilabeteko iraupena izango duela aurreikusten da.

Zenbateko hori indarrean dagoen udal-aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 baino handiagoa denez, Asteasuko Udalaren Osoko Bilkurari dagokio honako erabaki hauek hartzea:

- Kontratazio-organo gisa dagozkion kontratuak, espediente izapidetu beharreko obra-kontratuari dagokionez.
- 692/2021 Errege Dekretuak araututako prozeduraren parte-hartzea eta berariazko onarpena onartzea.
- Laguntzaren xede den proiektua osatzen duten jarduerak onartzea, proiektuaren aurrekontu osoa onartzea eta proiektua dagozkion urteetan aurrekontuz hornitzeko konpromisoa hartzea. Ildo horretan, laguntzaren xede den proiektuan jasotako jarduketak 2022. ekitaldian gauzatuko direla uste da.
- Laguntza kobratu aurretik proiektu osoa finantzatzeko konpromisoa. Konpromiso hori laguntza emateko ebazpena eta horren gainean eman

2. Corresponden al Pleno las competencias como órgano de contratación respecto de los contratos mencionados en el apartado anterior que celebre la Entidad Local, cuando por su valor o duración no correspondan al Alcalde o Presidente de la Entidad Local, conforme al apartado anterior. Asimismo, corresponde al Pleno la aprobación de los pliegos de cláusulas administrativas generales a los que se refiere el artículo 121 de esta Ley.

V. Según lo dispuesto en el "Proyecto de Ejecución Rehabilitación de la envolvente térmica de Pello Errota ikastetxea de Asteasu, firmado por Soroa Arquitectos, S.L.P. en septiembre de 2021", el valor estimado del contrato asciende al importe de 262.581,54 euros, y se estima en tres meses la duración de su ejecución.

Considerando que este importe supera el 10 por ciento de los recursos ordinarios del presupuesto municipal en vigor, resulta que corresponderá al Pleno del Ayuntamiento de Asteasu la adopción de los siguientes acuerdos:

- Los que corresponda como órgano de contratación respecto del contrato de obras cuyo expediente deberá tramitarse.
- La aprobación de la participación y aceptación expresa del procedimiento regulado por el Real Decreto 692/2021.
- La aprobación de las actuaciones que componen el proyecto objeto de ayuda, el presupuesto total del mismo y el compromiso para dotar presupuestariamente el proyecto en las anualidades correspondientes. En este sentido, se estima que las actuaciones recogidas en el proyecto objeto de ayuda serán ejecutadas en el ejercicio 2022.
- El compromiso para financiar la totalidad del proyecto con carácter previo al cobro de la ayuda. Dicho compromiso podrá condicionarse a la



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

daitekeen aurrerakina lortzek baldintzatu ahal izango du. Erakunde onuradunak aurrekontu propioa izan beharko du laguntzaren xede den proiektua sustatu eta gauzatzeko behar den inbertsio subentzionagarria egiteko, aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko indarreko araudian aurreikusitako prozedurak eta mugak kontuan hartuta; izan ere, laguntzaren zenbatekoa erakunde horri transferituko zaio inbertsio hori egin eta justifikatu ondoren, bai eta dagokion proiektua gauzatu dela ere, hargatik eragotzi gabe abuztuaren 3ko 692/2021 Errege Dekretuaren 23. artikuluan aurreikusitako aurrerakinak.

obtención de la resolución de concesión de ayuda, así como del anticipo que sobre la misma pueda concederse. La entidad beneficiaria deberá disponer de presupuesto propio para realizar la inversión subvencionable necesaria para la promoción y ejecución del proyecto objeto de ayuda, teniendo en cuenta los procedimientos y límites previstos en la normativa vigente de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera, dado que el importe de la ayuda será transferido a dicha entidad una vez realice y justifique dicha inversión así como la ejecución del proyecto correspondiente, sin perjuicio de los anticipos previstos en el artículo 23 del Real Decreto 692/2021, de 3 de agosto.

Tolosaldea Garatzen Eskualdeko Garapen Agentziako Ingurumen eta Toki Garapeneko teknikariak alde aurreko txostena eman du.

Previo informe de la Técnica de Medio Ambiente y Desarrollo Local de la Agencia de Desarrollo Comarcal Tolosaldea Garatzen.

Asteasuko Udaleko bitarteko idazkariak alde aurreko txostena eta proposamena eman du.

Previo informe-propuesta del Secretario Interino del Ayuntamiento de Asteasu.

Ogasuna, Kontu Bereziak eta Administrazio Informazio Batzordeak alde aurretik irizpena eman du.

Previo dictamen de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas Especiales y Administración.

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

La propuesta se somete a votación con el siguiente resultado:

Aldeko botuak: 7 (Legarra, Ayerza, Alkorta, Txapartegi, Iturbe, Otegui, Gómez)
Kontrako botuak: 0
Abstentzioak: 0

Votos a favor: 7 (Legarra, Ayerza, Alkorta, Txapartegi, Iturbe, Otegui, Gómez)
Votos en contra: 0
Abstenciones: 0

Horregatik guztiagatik, Udalbatzak

Por todo ello, el Pleno del Ayuntamiento,

ERABAKIA EMAN DU

HA ACORDADO

LEHENENGOA. Erronka demografikoa duten udalerrietan energia garbiko tokiko proiektu berezietarako inbertsioak egiteko zuzeneko laguntzak ematea arautzen duen abuztuaren 3ko 692/2021 Errege Dekretuak arautzen duen prozeduraren parte hartzea eta berariazko onarpena onartzea (DUS 5000 PROGRAMA), Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren Berroneratze eta Erronka Demografikorako Programaren esparruan.

PRIMERO. Aprobar la participación y aceptación expresa del procedimiento regulado por el Real Decreto 692/2021, de 3 de agosto, por el que se regula la concesión directa de ayudas para inversiones a proyectos singulares locales de energía limpia en municipios de reto demográfico (PROGRAMA DUS 5000), en el marco del Programa de Regeneración y Reto Demográfico del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia.

BIGARRENA. Laguntzaren xede den proiektu hau osatzen duten jarduerak, proiektuaren aurrekontu osoa eta 2022. urtean proiektua aurrekontu bidez hornitzeko konpromisoa onartzea:

SEGUNDO. Aprobar las actuaciones que componen el proyecto objeto de ayuda siguiente, el presupuesto total del mismo y el compromiso para dotar presupuestariamente el proyecto en el ejercicio 2022:

- "Asteasuko Pello Errota ikastetxearen inguratzaile termikoa birgaitzeko proiektua", Soroa Arquitectos SLP enpresak 2021eko irailean sinatua. Aurrekontu orokorra, guztira: 317.723,66 euro (%21eko BEZa barne).
- "Asteasuko Pello Errota ikastetxearen inguratzaile termikoa birgaitzeko proiektua": proiektuaren idazlan kostea: 14.310,91 euro (%21eko BEZa barne).
- "Asteasuko Pello Errota ikastetxearen inguratzaile termikoa birgaitzeko proiektua": obra zuzendaritza kostea: 4.293,27 euro (%21eko BEZa barne).
- "Proyecto de Ejecución Rehabilitación de la envolvente térmica de Pello Errota ikastetxea de Asteasu", firmado por Soroa Arquitectos, S.L.P. en septiembre de 2021. Total presupuesto general: 317.723,66 euros (21% IVA incluido).
- Coste de redacción del "Proyecto de Ejecución Rehabilitación de la envolvente térmica de Pello Errota ikastetxea de Asteasu": 14.310,91 euros (21% IVA incluido).
- Coste de Dirección de Obra del "Proyecto de Ejecución Rehabilitación de la envolvente térmica de Pello Errota ikastetxea de Asteasu": 4.293,27 euros (21% IVA incluido).

HIRUGARRENA. Aurreko puntuko proiektu osoa finantzatzeko konpromisoa onartzea, laguntza kobratu aurretik.

TERCERO. Aprobar el compromiso para financiar la totalidad del proyecto del punto anterior con carácter previo al cobro de la ayuda.

Konpromiso hori abuztuaren 3ko 692/2021 Errege Dekretuaren laguntza emateko ebazpena lortzearen baldintzapean dago.

Este compromiso se condiciona a la obtención de la resolución de concesión de ayuda del Real Decreto 692/2021, de 3 de agosto, por el



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

Dekretu horren bidez, erronka demografikoa duten udalerrietan energia garbiko tokiko proiektu berezietarako inbertsioak egiteko zuzeneko laguntzak ematea arautzen da (DUS 5000 PROGRAMA), Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren Berroneratze eta Erronka Demografikorako Programaren esparruan, bai eta aurrerakinari dagokionez ere.

Asteasuko Udalak aurrekontu propioa izango du laguntzaren xede den proiektua sustatu eta gauzatzeko beharrezkoa den diruz laguntzeko moduko inbertsioa egiteko, aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko indarreko araudian aurreikusitako prozedurak eta mugak kontuan hartuta.

LAUGARRENA. Egin beharreko eta gauzatu beharreko proiektua osatzen duten jardueren deskripzio-memoria onartzea.

BOSGARRENA. Alkate andreari ahalmena ematea beharrezkoak diren izapidetze-egintzak egin ditzan espedientearen dokumentazioa eta datuak aurkezteko, osatzeko, eskaera bideratzeko eta, hala badagokio, abuztuaren 3ko 692/2021 Errege Dekretuak araututako prozedura justifikatzeko egintzak gauzatzeko.

que se regula la concesión directa de ayudas para inversiones a proyectos singulares locales de energía limpia en municipios de reto demográfico (PROGRAMA DUS 5000), en el marco del Programa de Regeneración y Reto Demográfico del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia, así como del anticipo que sobre la misma pueda concederse.

El Ayuntamiento de Asteasu dispondrá de presupuesto propio para realizar la inversión subvencionable necesaria para la promoción y ejecución del proyecto objeto de ayuda, teniendo en cuenta los procedimientos y límites previstos en la normativa vigente de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera.

CUARTO. Aprobar la memoria descriptiva de las actuaciones a acometer y que conforman el proyecto a ejecutar.

QUINTO. Facultar a la Sra. Alcaldesa para que realice los actos de tramitación que sean necesarios para presentar, completar la documentación y datos del expediente, cursar la solicitud y, en su caso, realizar los actos de justificación del procedimiento regulado por el Real Decreto 692/2021, de 3 de agosto.

ZAZPIGARREN PUNTUA

AGINDUA, 2021eko uztailaren 28koa, Hezkuntzako sailburuarena. Honen bidez, iragartzen da Hezkuntza Administrazioaren mendeko ikastetxeak dauden udal-jabetzako higiezinetan obrak gauzatzeko eta karpak hornitzeko eta instalatzeko gastuak finantzatzeko laguntzen deialdia egiten duena (Udalaguntza-2021): urriaren 1eko 248/2021 Alkatetza Dekretua berrestea.

I. Ikusirik honako deialdia: *AGINDUA, 2021eko uztailaren 28koa, Hezkuntzako sailburuarena. Honen bidez, iragartzen da Hezkuntza Administrazioaren mendeko ikastetxeak dauden udal-jabetzako higiezinetan obrak gauzatzeko eta karpak hornitzeko eta instalatzeko gastuak finantzatzeko laguntzen deialdia egiten duena (Udalaguntza-2021).*

Agindu horretan jasotakoarekin bat, diru-laguntza eskaera aurkezteko epea 2021/10/6an amaitzen zen eta, besteak beste, aurkeztutako proiektua edo aurrekontua onartzeko udal-organo eskudunaren akordioa erantsi behar zen.

Kontuan hartuta Asteasuko Udal osoko ohiko bilkura urriaren 26an izango zela, urriaren 1eko 2021/248 Alkatetza Dekretuaren bidez, hau ebatzi zen:

“Ikusirik honako deialdia: AGINDUA, 2021eko uztailaren 28koa, Hezkuntzako sailburuarena. Honen bidez, iragartzen da Hezkuntza Administrazioaren mendeko ikastetxeak dauden udal-jabetzako higiezinetan obrak gauzatzeko eta karpak hornitzeko eta instalatzeko gastuak finantzatzeko laguntzen deialdia egiten duena (Udalaguntza-2021).

*Ikusirik Asteasu udalerrian kokatzen den **Pello Errota Ikastetxearen ingurutzaille termikoa birgaitzea** beharrezkoa dela, nagusiki, otsailaren 21eko Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa 4/2019 Legean jasotakoa betetzeko.*

Ikusirik aipatu Aginduak xedatutakoarekin bat datozela obra hauek,

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen, apirilaren 2ko 7/1985 legeari eta Toki Araubideari buruz indarrean dauden xedapenen Testu Bateratua onesten duen apirilaren 18ko 781/1986 E.D. Legegileari jarraiki

EBATZI DUT:

*LEHENA: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuaren 2018ko abenduaren 12ko Aginduak araututakoarekin bat, **“Pello Errota Ikastetxearen***



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

ingurutzaille termikoa birgaitzea“ lanen memoria eta aurrekontua onartzea.

BIGARRENA: Obra hauen aurrekontua 317.723,66€takoa da (BEZ barne).

HIRUGARRENA.- Ebazpen honen berri Udalbatzarrari ematea, egiten den hurrengo bilera arruntean”.

Segidan, Asteasuko Udalak aipatu diru-laguntza eskaera 2021/10/4an aurkeztu zuen.

II. **Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa egiten duenak, honako hau xedatzen du, besteak beste:**

Bigarren xedapen gehigarria. Toki-entitateen kontratazioaren arloko eskumenak.

1. Toki-entitateetako alkateen eta lehendakarien eskumena izango dira, kontratazio-organo diren neurrian, kontratu hauek guztiak: obra-kontratuak, hornidura-kontratuak, zerbitzu-kontratuak, obra-emakidako kontratuak, zerbitzu-emakidako kontratuak eta administrazio-kontratu bereziak, baldin eta haien balio zenbatetsia ez bada aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 baino handiagoa, eta ezta, inola ere, sei milioi euro baino gehiago ere; berdin gertatuko da urte anitzeko kontratuen kasuan ere, haien iraupena ez bada lau urtekoa baino luzeagoa, balizko luzapenak barne, eta, betiere, urteroko guztien zenbateko metatua ez bada lehenengo ekitaldiko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, ez eta sei milioi euro baino gehiago ere.

2. Osoko Bilkuraren eskumena izango da, kontratazio-organo den neurrian, aurreko apartatuan aipatutako kontratuak egitea kontratuaren balioagatik edo iraupenagatik toki-entitateko alkatearen edo lehendakariaren eskumena ez denean aurreko apartatuak xedatutakoarekin bat. Halaber, Osoko Bilkurari dagokio lege honen 121. artikuluan aipatzen diren administrazio-klausula orokorren agiriak onestea.

III. **“Asteasuko Pello Errota ikastetxearen ingurutzaille termikoa birgaitzeko proiektua”-n xedatutakoaren arabera (Soroa Arquitectos SLPk sinatu zuen 2021eko irailean), kontratuaren balio zenbatetsia 262.581,54 eurokoa da, eta hiru hilabeteko iraupena izango duela aurreikusten da.**

Zenbateko hori indarrean dagoen udal-aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 baino handiagoa denez, Asteasuko Udalaren Osoko Bilkurari dagokio honako erabaki hauek hartzea:

- Kontratazio-organo gisa dagozkion kontratuak, espedientea izapidetu beharreko obra-kontratuari dagokionez; horren barne, gauzatuko den proiektua edo aurrekontua onartzea.

- 692/2021 Errege Dekretuak araututako prozeduraren parte-hartzea eta berariazko onarpena onartzea.
- 2021eko uztailaren 28ko Aginduak araututako prozeduran parte hartzea eta berariazko onarpena ematea

Ogasuna, Kontu Bereziak eta Administrazio Informazio Batzordeak alde zuzenetik irizpena eman du.

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 7 (Legarra, Ayerza, Alkorta, Txapartegi, Iturbe, Otegui, Gómez)

Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 0

Horregatik guztiagatik, Udalbatzak

ERABAKIA EMAN DU

LEHENENGOA. Urriaren 1eko 2021/248 Alkatetza Dekretua berrestea. Bere ondorioz, hauek onartutzat ematea:

- 2021eko uztailaren 28ko Aginduak, Hezkuntzako sailburuarenak - Honen bidez, iragartzen da Hezkuntza Administrazioaren mendeko ikastetxeak dauden udal-jabetzako higiezinetan obrak gauzatzeko eta karpak hornitzeko eta instalatzeko gastuak finantzatzeko laguntzen deialdia egiten duena (Udalaguntza-2021) – araututako prozeduran parte hartzea eta berariazko onarpena ematea.
- Onartzea “Asteasuko Pello Errota ikastetxearen ingurutzaileria termikoa birgaitzeko proiektua”, Soroa Arquitectos SLP enpresak 2021eko irailean sinatua; aurrekontu orokorra, guztira: 317.723,66 euro (%21eko BEZa barne).

ZORTZIGARREN PUNTUA

Mozioak:

- **2021/06: Azaroak 25 Emakumeen kontrako indarkeria ezabatzeko nazioarteko eguna**



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

AZAROAK 25, EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA EZABATZEKO NAZIOARTEKO EGUNA

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

2003tik aurrera, emakumeonganako indarkeriari buruzko datuak jasotzen hasi zirenetik, 101 emakume eta 11 haur erailak izan dira Euskal Herrian. Zenbaki onartezin honen atzean izenak eta izanak daude. Erauzitako bizi proiektuak. Bereziki memorian gorde nahi ditugu, 2021ean zehar erail dituzten Erika Tavares, Conchi Gonzalez, Aintzane Pujana, Maria Pilar Berrio Jimenez eta Miarritzeko 75 urteko bizilaguna.

Urte honetan ere bereziki aipatu nahiko genuke, izebergaren punta diren erailketa hauetaz gain, ohikoak bilakatu direla gizonezkoek taldean egiten dituzten bortxaketei buruzko salaketa publikoak. Hala ere, eraso bakoitzaren aurrean, hauek salatu dituen Mugimendu Feminista saretu bat atera da kalera. Gaurko egunean ere, talde hauen lana eta ezinbestekotasuna azpimarratu behar dugu.

Urte luze hauetako lana izan da Indarkeriari maskara kentzea. Ez da lau zororen kontua. Sistema patriarkal sendo baten ondorioa baizik. Indarkeria matxistei buruz egindako makro-inkestak datu larria mahai-gaineratu zuen: bi emakumetik batek indarkeria matxista pairatu du bere bizitzan zehar.

Istanbulgo Hitzarmena ekarri nahi dugu gogora, urte luzeetan zehar Mugimendu Feministak egindako Indarkeriaren ikuspegi zabalpena bildu zuen lehen tresna loteslea. Hitzez hitz esaten du *"emakumearen aurkako indarkeriagatik" ulertu beharko dela giza eskubideen urraketa bat eta emakumeen aurkako diskriminazio modu bat, eta generoan oinarritutako indarkeria-ekintza guztiak izendatuko direla, emakumeentzat kalte edo sufrimendu fisiko, sexual, psikologiko edo ekonomikoak dakartzatenak edo eragin ditzaketenak, ekintza horiek egiteko mehatxuak barne, hertsapena edo askatasuna arbitrarioki kentzea bizitza publikoan edo pribatuan.*

Azaroaren 25ean, nazioarteko tresna lotesle hau aintzat hartuta, emakumeen kontrako indarkeria mota guztien aurka gaudela adierazteko eguna da, eta, hori ez ezik, indarkeria sorrarazten duten eragile guztien aurka ere bagaudela esatekoa. Bizitza aske, seguru eta burujabeak eraikitzearen alde gaudelako.

Indarkeria matxistaren alderdi desberdinak identifikatzen jarraitzeko eguna da, jendartean normalizatuen dauden sotilenetatik hasita, hala nola ukitzeak; ahozko lizunkeriak; publizistek eta mass-mediek emakumeen gorputzari ematen dieten

erabilerak; mezu eta adierazpen sexistak; janzkera, jendarte-sareen erabilera edo lagunartea kontrolatzea, eremu publikoa (eskolako patioak, jolastokiak, parkeak) askatasunez okupatzeko zailtasunak; edota emakume eta gizonen arteko berdintasuna zuzenean erasotzen dituzten administrazio-erabakiak. Bigarren estadio batean, sexu-erasoak eta eraso fisikoak egongo lirateke, eta, esparrurik bortitzenean, erailketak.

“Normaltasunera” bueltatzen ari garela zabalitzen ari den egun hauetan, Indarkeria Matxista pairatzen duten horientzat, ordea, ospatzeko normaltasunik ez dagoela adierazi beharrean gaude.

Gutariko bakoitzari dagokigu egoera hori aldatzea, eguneroko zereginetan hasiz, gure inguru hurbilenean jardunez. Eta gure kasuan, Asteasuko Udalerako beharrezkoak diren baliabide tekniko, ekonomiko eta politikoak aktibatze konpromisoa hartu behar dugu, berdintasun-unitateak sustatuz eta haiei laguntza eskainiz, berdintasun-teknikarien egonkortasuna edo kontratazioa bultzatuz, edota emakumeen parte-hartzerako guneak sustatuz hala nola, emakumeen etxeak eta txokoak, ahalduntze-eskolak, jai parekideak eta abar.

Guzti honengatik, indarkeria matxista gertakarietan funtzionamendu protokoloek erabiltzen dituzten mekanismo guztiak egokiak izatea da giltza; beti ere, indarkeria mota hau pairatzen duten emakumeen ahalduntzea helburu duten ikuspuntu batetik. Horretarako, instituzio publikoek gain, gai honetan adituak diren pertsonen eta mugimendu feministen parte hartzea beharrezkoa da ezarritako protokoloekin lagundu dezaten, eta azken batean, berdintasunezko etorkizun baterantz abiatu gaitezen.

Nabarmendu nahi dugu, azken aldian, sare sozialetan eta espazio publikoetan, kide feminista askoren kontrako jazarpen handia ari garela ikusten. Ez da kasualitatea. Espazio publikoa hartu eta diskurtso eraldatzaileak mahai gaineratzen dituzten emakume feminista hauek jazartzea, antolatutako gorroto eta indarkeria matxista kanpaina baten ondorioa da. Eremu digitalean gertatu diren jazarpen kasu hauek gutxitzera jo izan dugu, baina duten garrantzia eta emakume hauen jarduna eteteko duen asmoa salatzeko garaia da. Horregatik, lerro hauek erabili nahi ditugu, espazio horietan dauden kideei haien lana eskertu eta alboan gaituztela esateko.

Mugimendu Feministak, egun honen bueltan antolatuko dituen mobilizazioetan eta ekimenetan parte hartzeko deia egiten amaitu nahi ditugu lerro hauek.

PROPOSAMENA



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

- 1.- Asteasuko Udal honek, Emakumeen Munduko Martxak bultzatutako indarkeria matxistaren aurreko erantzun-protokoloa bere egiten du.
- 2.- Asteasuko Udal honek ez du murrizketarik egingo 2022eko berdintasun-aurrekontuetan, eta gainera, berdintasun-unitateak egonkortzeko eta indartzeko konpromisoa hartzen du.
- 3.- Asteasuko Udal honek larrialdietako alerta-mekanismoak indartuko ditu, larrialdietan erantzuna bizkortzeko eta bermatzeko.
- 4.- Asteasuko Udal honek Foru Aldundiari eta Emakunderi / Nafarroako Berdintasunerako Institutuari eskatzen die emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alorreko aurrekontu-partidak handitzeko, berdintasun-zuzendaritzak eta epaitegi espezializatuak modu iraunkorren sendotzeko eta indarreko legeria berraztertzeko konpromisoa hartzeko.
- 5.- Asteasuko Udal honek ziberindarkeria eta ziberjazarpena prebenitzeko eta erantzuteko estrategiak landuko ditu, indarkeria matxisten egungo egoeraren analisiari erantzuteko.
- 6.- Asteasuko Udal honek Jai giroan eman litezkeen erasoei erantzuteko eta hauek prebenitzeko protokoloa berritzeko/sortzeko, eta hau Mugimendu Feministarekin eta Jai Batzordearekin batera egiteko konpromisoa hartzen du.
- 7.- Asteasuko Udal honek indarkeria matxistarekin zerikusia duten baliabide, zerbitzu eta prozedura guztiak, administratiboak nahiz judizialak, publikoak, doakoak eta ez diskriminatzaileak direla bermatuko du / bermatzeko dei egiten du.
- 8.- Asteasuko Udal honek, neskei, gazteei eta emakume helduei zuzendutako jabeakuntza jarduerak abian jarriko ditu, hainbat gai jorratu ahal izateko, besteak beste, bikote harremanak eta harreman sexu-afektiboak, amodio erromantikoak, sexualitate libreak, etab., 10 urtetik gorako neskei eta nerabeei zuzendutako autodefentsa feministako tailer iraunkorrak ere jasoz.
- 9.- Erakunde honetatik, hau da, Asteasuko Udaletik, borroka feministaren alde hartu dugun konpromisoa berretsi nahi dugu, indarkeriarik gabeko gizarte demokratiko bat eraikitzeko bide eta tresna nagusia den heinean.

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 7 (Legarra, Ayerza, Alkorta, Txapartegi, Iturbe, Otegui, Gómez)

Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 0

Gauzak horrela, Udalbatzak

HAU ERABAKI DU

Lehena. Jasotako adierazpena onartzea.

Bigarrena. Erabaki honen berri ematea interesdunei.

- **2021/07: Energia horniduraren prezioen gorakadaren aurrean hartzeko neurrien inguruan**

MOZIO proposamena Energia horniduraren prezioen gorakadaren aurrean hartzeko neurrien inguruan.

Propuesta de MOCIÓN sobre medidas a tomar ante el aumento de los precios del suministro energético.

ZIOA

JUSTIFICACIÓN

Argindarraren prezioa maximo historikoetan; fakturak igotzen; enpresa elektrikoak aberasten, herritarrak pobretzen eta Espainiako Gobernu hori baimentzen ari da. Hori da, hain zuzen ere, herritarren aurka egiten ari den iruzur handiaren laburpena. Iruzur horrek ondorio larriak izan ditu familietan, enpresa txiki eta ertainetan edo denda txikietan.

El precio de la luz en máximos históricos; subiendo las facturas; enriqueciendo a las empresas eléctricas, empobreciendo a la ciudadanía y el Gobierno español permitiéndolo. Este es el resumen del gran fraude que se está cometiendo contra la ciudadanía. Este fraude ha tenido graves consecuencias para familias, pymes o pequeños comercios.

Egoera hori, besteak beste, enpresa publikoen pribatizazioaren, salmentaren eta desegitearen ondorioz etorri da; izan ere, horrek sistema desarautzea eta "merkatuaren" esku uztea ekarri du. Administrazio Kontseiluetatik kontrolatzen eta manipulatzeko duten merkaturak, helburu bakar bat partekatuz: energia bezalako funtsezko ondasun baten kontura aberastea, non enpresa handiek urtean mila milioi euroko irabaziak metatzen dituzten, kontsumitzaileei dirua lapurtzen eta ekoizleei lurraldeak ebazten dizkieten bitartean, ondorio sozial eta klimatiko oso larriak eraginez.

Esta situación ha venido motivada, entre otras cosas, por la privatización, venta y desmantelamiento de empresas públicas, lo que ha llevado a la desregulación del sistema y a dejarlo en manos del "mercado". Un mercado que controlan y manipulan desde los Consejos de Administración, compartiendo un único objetivo: enriquecerse a costa de un bien esencial como la energía, en el que las grandes empresas acumulan unos beneficios de mil millones de euros anuales, mientras roban dinero a los consumidores y terrenos a los productores, provocando gravísimas consecuencias sociales y climáticas.

Egoera horri aurre egiteko neurri koiunturalak eta adabakiak besterik ez

Sólo se han tomado medidas coyunturales y parches para hacer frente



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

dira hartu. Eta enpresa handien onurei eragingo dien neurri bakarra hartu duenean, enpresa xantaia egin eta mehatxura jo dute. Eliteen eta gehiengo sozial eta herrikoiaren arteko pultsu baten aurrean gaude, finean.

Egoera hau garesti ateratzen zaigu. Bada garaia burujabetza energetikorantz aurrera egin dezagun, ezarritako oligopolioa apurtuko duten sistema propioak izan ditzagun, sistema bidezkoak publikotik eraikitzeko eta argindarra errespetatzeko, oinarritzko ondasun eta eskubide gisa.

Gure eskumen propioetatik, tokiko erakundeetatik ere, urratsak eman ditzakegu norabide horretan, herritarren interesak babesteko. Horregatik,

EBAZPEN PROPOSAMENA

1. Asteasuko Udaleko Osoko Bilkurak Espainiar estatuko enpresa elektrikoak argindarraren prezioarekin egiten ari diren iruzur larria salatzen dute.

2. Asteasuko Udaleko Osoko Bilkurak Estatuko eta Europako instituzioei eskatzen die, behar beste neurri har ditzaten elektrizitate ekoizleek bidezko ordainsaria soilik jasotzen dutela bermatzeko. 2019/44 Europar Zuzentarauak adierazten duena burutuz, kontsumitzaileentzat energia-prezio eta -kostu eskuragarriak eta gardenak bermatzeko.

3. Asteasuko Udaleko Osoko Bilkurak Jaurilaritzari eskatzen dio:

a esta situación. Y cuando ha tomado la única medida que afectará a los beneficios de las grandes empresas, han recurrido al chantaje empresarial y a la amenaza. Estamos, en definitiva, ante un pulso entre élites y mayorías sociales y populares.

Esta situación nos sale cara. Ya es hora de que avancemos hacia la soberanía energética, que tengamos sistemas propios que rompan el oligopolio establecido, que construyan sistemas justos desde lo público y que se respete la electricidad como bien y derecho básicos.

Desde nuestras propias competencias, podemos dar pasos en esa dirección para salvaguardar los intereses de la ciudadanía. Por ello,

PROPUESTA DE RESOLUCIÓN

1. El Pleno del Ayuntamiento de Asteasu denuncia el grave fraude que están cometiendo las empresas eléctricas del Estado español con el precio de la electricidad.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Asteasu insta a las instituciones estatales y europeas a adoptar cuantas medidas sean necesarias para garantizar que los productores de electricidad sólo perciban una remuneración justa, en cumplimiento de la Directiva Europea 2019/44, para garantizar precios y costes energéticos accesibles y transparentes para los consumidores.

3. El Pleno del Ayuntamiento de Asteasu solicita al Gobierno Vasco:

3.1. Autokontsumoa eta komunitate energetikoak sustatzeko diru partidak gutxienez bikoiztu ditzala 2022. urteari begira.

3.2. Energiaren Euskal Erakundearen bitartez elektrizitatearen merkaturatzaile publiko bat sortzeko bideragarritasun-azterketa egin dezala.

3.3. Gizarte Larrialdietarako Laguntzetara zuzendutako ordainketa-kreditua handitu dezala, *“elektrizitatearen, gasaren edo etxean erabiltzeko bestelako erregaien horniduraren ondoriozko energia-gastuekin”* erlazioatutako laguntzak jasotzeko baldintzak betetzen dituen eskaerarik baztertu ez dadin.

3.4. Gizarte Larrialdietarako Laguntzetan, *“elektrizitatearen, gasaren edo etxean erabiltzeko bestelako erregaien horniduraren ondoriozko energia-gastuetarako”* eman daitezkeen diru-kantitateak handitu ditzala, eta gutxieneko zenbatekoak ezar ditzala, indarrean dauden horniduren prezioarekin bat egon dadin.

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 6 (Legarra, Ayerza, Alkorta, Txapartegi, Iturbe, Otegui,)
Kontrako botuak: 0
Abstentzioak: 1 (Gómez)

Gauzak horrela, Udalbatzak

HAU ERABAKI DU

Lehena. Jasotako adierazpena onartzea.

3.1. Que duplique al menos las partidas destinadas a fomentar el autoconsumo y las comunidades energéticas de cara al año 2022.

3.2. Que realice un estudio de viabilidad para la creación de un comercializador público de electricidad a través del Ente Vasco de la Energía.

3.3. Que amplíe el crédito de pago destinado a las Ayudas de Emergencia Social para que no se rechace ninguna solicitud que reúna las condiciones de acceso a las ayudas relacionadas con los *“gastos energéticos derivados de la electricidad, el gas o el suministro de otros combustibles de uso doméstico”*.

3.4. Que en las Ayudas de Emergencia Social se incrementen las cantidades de dinero que puedan destinarse a *“gastos de energía derivados del suministro de electricidad, gas u otros combustibles de uso doméstico”* y se fijen cuantías mínimas para que coincidan con el precio de los suministros vigentes.

La propuesta se somete a votación con el siguiente resultado:

Votos a favor: 6 (Legarra, Ayerza, Alkorta, Txapartegi, Iturbe, Otegui)
Votos en contra: 0
Abstenciones: 1 (Gómez)

Por todo ello, el Pleno del Ayuntamiento,

HA ACORDADO

Primera. Aceptación de la declaración recibida.



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

Bigarrena. Erabaki honen berri ematea Segundo. Notificar el presente acuerdo a
interesdunei. los interesados.

ZORTZIGARREN PUNTUA

Erregu eta galderak.

Alkate andreak hitza hartu du. Bi gai adierazi ditu:

- Gipuzkoako Foru Aldundiak kudeatu behar du Europako diru-laguntzak udal eraikinetan plaka fotoboltak instalatzeko. Asteasuko Udala atxikitu egin da, eta azterketa egin ondoren, Aldundiko bi teknikaririk esan dute kiroldetako teilatua eta eskolako eraikin berriaren teilatua bi kokaleku egoki izan daitezkeela; gainera, panel horiek aipatu eraikinek behar izango duten gaitetiko energia sortuko dutenez gero, Udalak eszedentea izango du, eta eszedente hori kudeatzeko komunitate energetiko bat osatu daiteke. Azken hori geroago aztertuko da.
- Lamiategiko gaiak aurrera doaz, eta laster salmenta eta urbanizazioaren esleipen-plenoa egingo da; gainera, etxebizitzak esleitzeko oinarriak azertu egingo dira.

Eta beste gairik ez dagoenez, Alkate andreak bilera amaitutzat ematen du arratsaldeko 20:20 orduak direnean, nik Idazkariak, bertan jasotakoaren akta hau luzatzen dudalarik.

Asteasun, 2021eko urriaren 26an.

Alkate andrea

Bitarteko Idazkari Kontuhartzailea